

EUSKADI LITERATURA SARIAK

SAIAKERA EUSKARAZ

2018

Epaimahaia:

- Arantxa Urretabizkaia epaimahaiburua
- Mitxelko Uranga epaimahaikidea
- Monika Madinabeitia epaimahaikidea
- Agurtzane Elordui epaimahaikidea
- Alberto López epaimahaikidea

Irabazlea

Irabazlea: Kepa Altonaga Sustatxa
Izenburua: *Patagoniara Hazparnen barrena*
Argitaletxea: Pamiela

Epaimahaiak ikusitako merituak

Istorio harrigarria bezain zoragarria da liburu honetan Kepa Altonagak irakurleoi eskaintzen diguna. Kutsu milenaristaren aztarnak dituen istorioa kontatzen digu. Euskaldunak Ameriketara Euskal Herri berria sortzeko ibilbidean, Bilbotik Hazparnera eramango gaitu; eta Hazparnetik Argentinako Patagoniara, behin eta berriro, joan eta etorrian.

Baina abentura horren inguruan gertatutakoa baino askoz gehiago iradokitzen digu liburu honek. Euskal Herritik kanpora joandakoei presentzia ematen die eta horrela, euskal diasporarako hurbilpena ere bada. Atzean duen dokumentazio lan itzela agerian da testu osoan baina, idazlearen trebezi bereziari esker, erraz murgilduko da irakurlea istorioan. Istorioa jakin-mina piztu duen eran kontatuta baitago.

Maisulana, dudarik gabe, eredu literariorri begiratzen badiogu ere. Idazketa samurra, arina, estilo freskoa eta dinamikoa du, baina, aldi berean, mamitsua da oso. Berebiziko abilezia agertu du, gainera, zehar aipamenak egoki erabiltzeko eta bere testugintza aberasteko moduan txertatzeko. Askotan, han eta hemen, lapurteraren oihartzunak ekartzen dizkigun eredian, maisua da Altonaga bere jatorrizko bizkaieratik hartutako hitzak eta joskerak ere uztartzen.

Kepa Altonaga Sustatxa

1958, Loiu.

Biologia-ikasketak Euskal Herriko Unibertsitatean egin zituen. Zoogeografia eta Ornogabe Ez-Artropodoen Zoologia irakasten ditu Zientzia eta Teknologia Fakultatean. Eusko Legebiltzarrak Munibe Saria eman zion bere ikerketa-taldeari 1992an.

Argitaratutako liburuak: *Folin marka: marraskiloak eta euskaldunak uharte galduan* (Elhuyar, 1998), *Armand David, pandaren aita* (Elhuyar, 2001), *Etxepare, Aldudeko medikua* (Euskaltzaindia/EHU, 2006), *Darwin geurean* (Pamiela, 2010), *Arnaut Abadiaren zoo ilogikoa* (Pamiela, 2011) eta *Back to Leizarraga* (Pamiela, 2015).

Patagoniara Hazparnen barrena

Oroitzapen batetik abiatuta eta Obaban zehar, Lotilandiako garaietaraino hurbilduko gara Kepa Altonagaren eskutik. Aldamenean daukagu mundu hori, baina guztiz ezezagun bilakatu zaizkigu horko parajeak eta biztanleak, eta ahaztu egin dugu bere historia.

Gizakume bi gailentzen dira *Patagoniara Hazparnen barrena*. Lotilandiakoak herri birlandatuan honetan. Florentzio Basaldua (1853-1932) bilbotarrak du protagonismo nagusia: Ameriketara doa oso gazterik, eta bertan eraiki nahi du Euskal Herri berri bat, hango zabaldi haindigaitzetan. Janpierre Arbelbide (1841-1905) garaztarra da kontrapuntua: “hori ez da amets bat beizik” idatzi zuen, baina predikatu nahi die Ameriketara joandako euskaldunei.

Patagoniara Hazparnen barrena. Lotilandiakoak herri birlandatuan liburu intrigagarri eta mamitsua da, zeinean aurkituko baititugu bai Ameriketara turrustatu zen jende –uholde ikaragarri hura- tartean Daniel Lizarralde mekikua, Juana Canut maistra lapurtarra, Otaño eta Mendiaga bertsolariak, edota Agnes Souret ezpeletarra, lehen miss Frantzia izandakoa-, eta bai, bestalde, Betiri Santsen negar-herri honetan geratu zirenak ere..

Aurreko edizioetako irabazleak

- (2010) Azurmendi Otaegi, Joxe. Azken egunak Gandiagarekin, Elkar.
- (2011) Sarrionaindia, Joseba. *Moroak gara behelaino artean?*, Pamiela.
- (2012) Mujika Iraola, Inazio. *Xabier Lete (Auto)biografia bat*, Alberdania.
- (2013) Sudupe Martija, Jon. *Oi Europa!*, UPV/EHU.
- (2014) Gabilondo Alberdi, Joseba. *New York Martutene*, UPV/EHU.
- (2015) Azurmendi Otaegi, Joxe. *Historia, arraza, nazioa*, Elkar.
- (2016) Uranga Álvarez, Mitxelko. *Mina, boterea eta egia*, Pamiela.
- (2017) Urretabizkaia, Arantxa. *Bidean Ikasia*. Pamiela.



Irabazlea - Ganador: **Kepa Altonaga**
Izenburua - Título: ***Patagoniara Hazparnen barrena***
Argitaletxea - Editorial: **Pamiela**

